


Azterketak



Hego Euskal Herriko
2007ko fiskalitatearen
gaineko txostena

ELAko Azterketa Bulegoa

Non zer

SARRERA	3
A. HEH-KO ZERGA ARLOARI BURUZKO ZENBAIT GOGOETA	4
1. Gure presio fiskalaren eta europar batasunekoaren arteko aldea	4
2. Zerga arloa, lan-errentei erreparatuz	7
3. Ondoz ondoko hainbat erreforma, zergak urriagotzeko.	8
4. Gastu fiskalen pisu handia	13
5. 2008an, zerga-bilketa urriagoa	14
B. ZERGA ARLOA EAE-N	16
1. Hitzartutako zergen bilketa EAEn. 2007koa eta 2006koarekiko bilakaera	16
2. Hitzartutako zergen presio fiskala EAEn. 2007koa eta 1998koarekiko bilakaera	18
3. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga. EAE, 2005ekoa eta 1999koarekiko bilakaera.	22
4. Zergen ikuskaritza	23
C. ZERGA ARLOA NAFARROAN	24
1. Hitzartutako zergen bilketa Nafarroan. 2007koa eta 2006koarekiko bilakaera	24
2. Hitzartutako zergen presio fiskala Nafarroan. 2007koa eta 1998koarekiko bilakaera.	26
3. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga. Nafarroa, 2006koa eta 2001ekoarekiko bilakaera	30
4. Zergen ikuskaritza	32
ERANSKINA / ELAK ZERGA-IRUZURRAREN KONTRAKO 2008-2012 PLANAREN LEHENENGO ZIRRIBORROARI BURUZ EGINDAKO BALORAZIOA	34
Iruzurraren aurkako 2008-2012 Planaren Lehenengo Zirriborroaren edukia	34
ELAren proposamenak	37
Ondorioztapena	37
OHARRAK	39



MANU
ROBLES-ARANGIZ
INSTITUTUA

Estudios-Azterketak Saila 12. zenbakia
Bilbao, 2008ko abendua

SARRERA

Gizarte ereduari dagokionez, funtsezko gaia da fiskaltasuna. Zerga jardueraren araudiaz ari gara. Urte asko dira ELAk salatzen duela fiskaltasuna gizarte justuago bat eraikitzeko tresnatzat hartu behar dela, gizarte gastu handiago batek lagunduta, kalitatezko, doako eta unibertsalak diren zerbitzu publikoak izateko. Osasun, hezkuntza, gizarte zerbitzu, edo etxebizitza duinera eskubidea izateaz mintzo gara. Azken finean, bizi kalitate hobez ari gara.

Fiskaltasuna ez da zenbat diru biltzen den soilik, baizik eta nori eta nondik biltzen den diru hori ere bai.

Hau dela eta, gaur egungo sistema fiskal neoliberalaren Azterketa honetan, Hego Euskal Herrian (HEH) ematen den presio fiskal eskasaren berri edota ematen den izugarrizko zerga iruzurraren berri emango dugu. Eta gehien dutenak babesten dituen politika kapitalistak nabarmen geratzen dira, langileok diru bilketa publikoaren zama gainean eraman behar dugun bitartean.

Urtero aztertzen ditugun gai hauetaz gain, enpresentzat zerga eskasak eta ondarearen gaineko zergaren abolizioa nahi duten erreforma fiskalen gakoa ere gaineratu dugu.

Gizartearentzat justua izango den fiskaltasun bat eskatzen dugu ELAn, gutxien dutenei babesa ematen dien fiskaltasuna, eta guztion beharrak betetzen dituen.

Posiblea, eta gainera beharrezkoa da sistema fiskal justu baterako aldaketa. Indar korrelazio kontua da. Ikerketa honek ELAko militantzia osoarentzat tresna izan nahi du, eta baita beste gizarte sektore batzuentzat ere, informatu eta gogoeta egiteko, eta horrela, hobeto antolatu ahal izateko.

A. HEHKO ZERGA ARLOARI BURUZKO ZENBAIT GOGOETA

1. GURE PRESIO FISKALAREN ETA EUROPAR BATASUNekoAREN ARTEKO ALDEA

HEHko zerga arloaren berezitasunik aipagarrienetako bat Europar Batasunekoarekiko agertzen duen presio fiskal urria da. 27-EBn, batez beste, zergak eta Gizarte Segurantzarako kotizazioak sortutako aberastasunaren %39,9 direlarik, EAEn eta Nafarroan %33,2 eta %32,5 baino ez dagokie, hurrenez hurren. Jauzia are nabariagoa da gure presio fiskala Danimarkarekin edo Suediarekin erkatuz gero, bi estatu horietako presio fiskalak, ondoz ondo, BPGaren %49,1ekoa eta %48,9koa dira eta. Berez, HEHko presioa Europar Batasuneko txikienetako da; izan ere, Greziako presio fiskala (BPGaren %31,4koa) baino ez da Nafarroakoa baino txikiagoa, eta Greziakoa eta Irlandakoa (BPGaren %32,6koa) baizik ez daude EAEkoaren azpian. Espainiako Estatuak berak ere badu HEHkoa baino presio portzentaje handiagoa, %36,5ekoa, hain zuzen ere.

Europarekiko aldeak aztertzean ikus daitekeenez, EAEko presio fiskala 27-EBkoa baino 6,7 puntu txikiagoa da, edo, bestela esateko, 27-EBkoa EAEkoa baino %20,2 handiagoa da. Diferentziarik handiena zuzeneko zergetan ageri da; zerga horien bidez, EAEk %3,5 diru gutxiago biltzen du (2,8 puntuko aldea zeharkako zergetan eta 1,3 puntukoa Gizarte Segurantzarako kotizazioetan) Europar Batasuneko herrialdeek batez beste baino. Horren arabera, EAEn 4.152 milioi euro gutxiago biltzen dira Europar Batasunean⁽¹⁾ batez beste baino, hau da, 1.938,4 euro gutxiago pertsonako⁽²⁾.

Nafarroako presio fiskala 27-EBko batez bestekoa baino 7,4 puntu txikiagoa da (edo, gauza bera beste modu batez esateko, Europar Batasuneko Nafarroakoa baino %22,8 handiagoa da). Kasu honetan, diferentziarik handiena, 3,8 puntukoa, zeharkako zergetan antzematen da (hurrengo handiena, 3,3 puntukoa, zuzeneko zergetan ageri da, eta 1,2ko aldea, Gizarte Segurantzarako kotizazioetan). Nafarroako presioaren eta 27-EBkoaren arteko jauzi hori, diruz adierazita, 1.265,4 milioi eurokoa⁽³⁾ da, hau da, 2.088 eurokoa biztanleko⁽⁴⁾.

Hortaz, HEHn 5.417 milioi euro gutxiago biltzen dira zergen bidez Europar Batasunean batez beste baino (1.971,5 euro gutxiago pertsonako)⁽⁵⁾.

**27-EBko presio fiskala (gutzizkoa, zeharkako zergak, zuzenekoak eta gizarte segurantzarako ekarpenak)
BPG % 2006⁽⁶⁾**

	Gutzizkoa	Zeharkakoak	Zuzenekoak	G.S. ekarpenak
Danimarka	49,1	18	30,2	1
Suedia	48,9	17,1	19,8	12,1
Belgika	44,6	13,8	17,2	13,6
Frantziako E.	44,2	15,7	12,3	16,5
Finlandia	43,5	13,9	17,5	12,1
Italia	42,3	15,1	14,5	12,7
Austria	41,8	14,3	13,1	14,4
27-EB	39,9	13,9	13,5	12,6
Herbehereak	39,5	13,3	12	14,2
Alemania	39,3	12,4	10,9	15,9
Erresuma Batua	37,4	13,1	17,4	6,8
Espainiako E.	36,5	12,7	12,1	12,1
Portugal	35,9	15,7	8,8	11,4
Luxemburg	35,6	12,5	13,2	9,9
EAE	33,2	11,1	10,0	11,3
Irlanda	32,6	14,3	13,4	4,9
Nafarroa	32,5	10,1	10,2	11,4
Grezia	31,4	12,2	8,1	11,1

Iturriak: Eurostat, Eusko Jaurlaritz, Eustat, Nafarroako Gobernua, NEI, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra

Hurrengo grafikoetan ikus dezakegunez, zeharkako zergak dira gure alde makalena Europako gainerako estatuiekiko erkaketan, arlo horretan, bai Nafarroak (BPGaren %10,1), bai EAEk (BPGaren %11,1) 27-EB osoko portzentajerik txikienak erakusten baitituzte (27-EBko batez besteko presio fiskala BPGaren %13,9koa delarik).

Zeharkako zergen presio fiskala (BPG %). 27-EB 2006⁽⁶⁾

Danimarka	18
Suedia	17,1
Frantziar estatua	15,7
Portugal	15,7
Italia	15,1

Austria	14,3
Irlanda	14,3
EB-27	13,9
Finlandia	13,9
Belgika	13,8
Herbeherak	13,3
Erresuma Batua	13,1
Espainiar estatua	12,7
Luxemburgo	12,5
Alemania	12,4
Grezia	12,2
EAE	11,1
Nafarroa	10,1

Iturriak: Eurostat, Eusko Jaurlaritz, Eustat, Nafarroakoa Gobernu, NEI, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra

Zuzeneko zergei dagokienez, egoera hobexea da, Portugalek (BPGaren %8,8) eta Greziak (BPGaren %8,1) presio fiskal txikiagoak dituztelako zerga horietan, Nafarroak (BPGaren %10,2) eta EAEk (BPGaren %10) baino. Hala eta guztiz ere, EBko gainerako estatuekiko aldea nabarmena da, batez ere 27-EBko zuzeneko zergen batez besteko presio fiskala BPGaren %13,5ekoa dela kontuan harturik.

Zuzeneko zergen presio fiskala (BPG %). 27-EB 2006⁽⁶⁾

Danimarka	30,2
Suedia	19,8
Erresuma Batua	17,4
Finlandia	17,5
Belgika	17,2
Italia	14,5
EB-27	13,5
Irlanda	13,4
Luxemburgo	13,2
Austria	13,1
Frantziar estatua	12,3
Espainiar estatua	12,1
Hebeherak	12
Alemania	10,9
Nafarroa	10,2
EAE	10,0

Portugal	8,8
Grezia	8,1

Iturriak: Eurostat, Eusko Jaurlaritza, Eustat, Nafarroako Gobernua, NEI, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra

Gizarte Segurantzarako kotizazioen kasuan, Portugalek Nafarroak besteko presioa du, eta Greziak, Luxenburgok, Erresuma Batuak, Irlandak eta Danimarkak agertzen dituzte EAEk baino presio fiskal txikiagoak. Dena den, Europar Batasuneko batez besteko presio fiskala (BPGaren %12,6) Nafarroakoa (BPGaren %11,4) zein EAEkoa (BPGaren %11,3) baino handiagoa da.

Gizarte segurantzarako kotizazioen presio fiskala (BPG %). 27-EB, 2006⁽⁶⁾

Frantziar estatua	16,5
Alemania	15,9
Austria	14,4
Herbeherak	14,2
Belgika	13,6
Italia	12,7
EB-27	12,6
Espainiar estatua	12,1
Suedia	12,1
Finlandia	12,1
Nafarroa	11,4
Portugal	11,4
EAE	11,3
Grezia	11,1
Luxemburgo	9,9
Erresuma Batua	6,8
Irlanda	4,9
Danimarka	1

Iturriak: Eurostat, Eusko Jaurlaritza, Eustat, Nafarroako Gobernua, NEI, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra

2. ZERGA ARLOA, LAN-ERRENTEI ERREPARATUZ

HEHko zerga arloa 27-EBkoarekiko ageri duen defizitaren arrazoietakoa bat soldatakoak ez diren errentetan jatzotzen den iruzur fis-

kal handia da. PFEZn batez beste aitortutako lan-errenta 20.108,5 eurokoa izan da Hego Euskal Herrian, jarduera ekonomikoek batez beste aitortutakoa (hau da, enpresarien, profesionalen eta artisten errentak), 11.208 euro, baino 8.900 euro handiagoa, alegia⁽⁷⁾.

Horrez gain, EAeri zein Nafarroari buruzko ataletan ikusten denez, aitortutako bi errenta moten arteko jauzia gero eta handiagoa da urtez urte. Horrek, zalantza barik, zuzeneko lotura du lau lurralde historikoetan ikuskaritzan egiten den ahalegin urriarekin, eta gero eta urrunago jartzen gaitu Europako parametroetatik.

Kolektibo bakoitzak batez beste aitortutako errenta (euro). Hego Euskal Herria, 2005

Lana	20.108,5
J. Ekonomikoak	11.207,9
Diferentzia	8.900,5

Iturria: ELAren Azterketa Bulegoak Euskadiko Zerga-Koordinaziorako Organoaren eta Nafarroako Gobernuaren informazioetan oinarrituz prestatua

2005ean, HEHn, jarduera ekonomikoen 202.332 aitortpen egin ziren. Aitortpen horietan, lan-errentetan aitortutako diru-kopuru bera jaso balitz, Hego Euskal Herrian 1.800,9 milioi euro gehiago jasoko ziren zerga-bilketan, hots, bildutakoa baino %6,9 gehiago⁽⁸⁾. Agerikoa da errenta ekonomikoak lan-errentak baino handiagoak direla; beraz, argi dago benetako diru-sarrerak aitortuko balira, askoz diru gehiago bilduko litzatekeela zergen bidez.

Soldatakoak ez diren errentetan egiten den iruzur fiskalaren ondorioz, zuzeneko zergen bidez bildutakoaren %60,2 EAEn, eta %52,8 Nafarroan, lanaren PFEZtik datoz⁽⁹⁾.

3. ONDOZ ONDOKO HAINBAT ERREFORMA, ZERGAK URRIAGOTZEKO.

Hego Euskal Herrian azken urteetan egin diren erreforma fiskal ugariak areagotu egin dute Europar Batasuneko zerga arloarekiko genuen diferentzia, erreforma horiek Sozietateen gaineko Zergaren eta errenta handien PFEZren gutxitzea eta kapitalak %18ko tasa finkoa ordaintzea ekarri dute eta. 2007ko ekitaldiko erreformek, adibidez, HEHn urtero 500 milioi euro gutxiago biltzea eragin dute.

Gaur egun, Sozietateen gaineko Zerga areago murrizteko eta Ondarearen gaineko Zerga kentzeko proposamenak aurkeztu dira. Alderdi horiexen gainean hausnartuko dugu jarraian⁽¹⁰⁾.

Sozietateen gaineko Zerga

Hurrengo taulan, Nafarroako Sozietateen gaineko Zergaren tasak azken urteetan izan duen beheranzko bilakaera azaltzen da, bai eta 2009rako planteatzen dena ere.

Sozietateen gaineko zergaren tasak (%) Nafarroa 1996-2009

	1996	2001	2005	2007	2008	2009
Enpresa handiak	35	35	35	32,5	30	30
9 milioi euro-tik beherako negozio-zifra duten enpresak	35	35	35	28	28	28
6 milioi euro-tik beherako negozio-zifra duten enpresak	35	32,5	32,5	32,5	28	28
1 milioi euro-tik beherako negozio-zifra duten enpresak	35	32,5	30	25	24	23

Iturria: Nafarroako Gobernua

2007ko urtealdian, Bizkaiak eta Arabak 4,6 puntuko murrizpena ebatzi zuten Sozietateen gaineko Zergan, eta, horrela, %32,6tik %28ra gutxitu zuten 2007an lortutako mozkinen aplikatu beharreko tasa nominala. Erreforma hori ez zen Gipuzkoako Batzar Nagusietan onartu, aldeko behar beste boto lortu ez zuelako. Hala eta guztiz ere, lurralde horretako Ahaldun Nagusiak dekretazo bat onartu zuen 2007ko azken egunean, eta, modu horretan, Gipuzkoako enpresek Arabako eta Bizkaiko arautegi berari jarraituz (%28ko tasaz) egin dute Sozietateen gaineko 2007ko Zergaren aitortpena. Batzar Nagusiek dekretazoa berretsi ez zuten, 2008an indarrean dagoen arautegia erreforma baino lehenagoko bera da (32,6ko tasa orokorra).

Ekonomiaren hazkunde txikiagoa aitzakia gisa erabiliz, EAK jarrera aldatu du, eta Gipuzkoan 2008tik aurrera Sozietateen gaineko Zerga %28ra jaitea proposatuta, %28ko tasa hori onartzeko behar zen besteko aldekotasuna osatu du. Bistan dago, ordea, dezelazioaren arrazoiek ez dutela batera zerikusirik enpresek ordaindu beharreko zerga handiekin. Orduan, zergatik engainatzen dute jendea, krisiaren ondorioei neurri fiskalen bidez aurre egin nahi zaiela esanez? Berez, proposatutako jaitziera iaz Araban eta

Bizkaian onartu zena baino are handiagoa da. Onartuz gero, aurreantzean, Gipuzkoan, 100 milioi euro gutxiago bilduko lirateke urtero zerga horren bidez.

Sozietateen gaineko Zergaren gutxipenak ez du ekonomiaren hazkundera sustatuko; ekarriko duen ondorio bakarra enpresek eskuratzen dituzten mozkinen zioz zerga urriagoak pagatzea izango da. Izan ere, EAEko sozietateen %37,4k zerga-oinarri negatiboa aitortzen du, hau da, ez du Sozietateen gaineko Zerga ordaintzen, galerak izan dituztela deklaraturik; %34,3k zerga-oinarri nulua edo 6.000 eurotik beherakoa aitortzen du, eta, horregatik, enpresa horietako askok ere (zerga-oinarri nulua deklaritzen dutenek) ez dute Sozietateen gaineko Zerga ordainduko⁽¹¹⁾. Hortaz, enpresen %71,6k 6.000 euro baino gutxiagoko oinarria aitortzen du, eta, beraz, enpresen %12,2k baino ez du aitortzen 60.000 eurotik⁽¹²⁾ gorako mozkinak lortu izana. Datu horiek ikusita, esan daiteke enpresek ordaindu beharreko zergak gehiegizkoak direla? Bidezkoa da enpresek are gutxiago ordaintzea?

Sozietateen gaineko zergaren aitortpenen kopurua eta portzentajea, zerga-oinarriaren arabera tarte bakoitzean. EAE 2005⁽¹²⁾

Zerga-oinarri tarteak (euro)	Aitortpen KP.	Aitortpen %
< 0	21.867	%37,4
0-6.000	20.052	%34,3
6.000-60.000	9.479	%16,2
60.000-300.000	4.622	%8
300.000-600.000	1.003	%1,7
>600.000	1.518	%2,6
Guztira	58.541	%100

Iturria: Euskadiko Zerga-Koordinaziorako Organoa

Gainera, hedabideetan Sozietateen gaineko Zergaren tasaren inguruan eratu den eztabaida guztiz aizuna da. Zehazki, EAEn, Sozietateen gaineko Zergaren batez besteko egiazko tasa %17koa da, alegia, batez besteko tasa nominala baino 15,6 puntu txikiagoa⁽¹²⁾. Alabaina, zerga-arintze, kenketa eta antzekoen ondorioz, EAEko enpresek benetan ordaintzen duten zerga eztabaidetan aipatzen den tasa nominalaren erdia da, praktikan.

Horrexegatik, Euskal Herrian zergaren tasa nominala altuagoa dela argudiatzen den arren, Nafarroan, Sozietateen gaineko Zergaren presio fiskala (BPGaren %3) Europar Batasuneko batez

bestekoaren berdina da, eta EAEkoa (BPGaren %2,7) hori baino 0,3 puntu beherago dago.

Sozietateen gaineko zergaren presio fiskala (BPG %)
27-EB, 2006

Luxemburgo	5
Danimarka	4,3
Espainiar estatua	4,2
Erresuma Batua	3,9
Irlanda	3,8
Belgika	3,7
Herbeherak	3,7
Finlandia	3,4
EB-27	3
Portugal	3
Italia	3
Nafarroa	3
Frantziar estatua	2,9
EAE	2,7
Austria	2,4
Alemania	1,4

Iturriak: Eurostat, Eusko Jaurlaritzza, Eustat, Nafarroako Gobernua, NEI

Ondarearen gaineko Zerga

Ogasunen proposamenetako beste bat Ondarearen gaineko Zerga ezeztatzea da, edo zerga horren zioz ezer ordaindu behar ez izatea, bestela. Lehenengo eta behin, gogoan izan behar dugu zerga horrek 120.000tik gorako ondareak⁽¹³⁾ zergapetzen dituela; hau da, benetako dirutzak dituztenek ordaindu beharreko zerga dela.

Ondarearen gaineko Zergaren zioz, 154,3 milioi euro biltzen dira EAEn, eta 61,9 milioi euro Nafarroan, zenbateko horiek, hurrenez hurren, bilketa osoaren %1,1 eta %1,7 direlarik⁽¹⁴⁾. Hortaz, Ondarearen gaineko Zerga ezeztatzeak 216,2 milioi euroko lerra eragingo luke HEHn.

Azter dezagun orain Ondarearen gaineko Zergaren egitura, zerga hori baliogabetzeak EAEn eragingo lituzkeen ondorioak zenbatesteari begira.

Daturik esanguratsuenetako bat aipatzearren esango dugu zerga horren bidez biltzen denaren %67 1,5 milioi euro baino gehia-

goko zerga-oinarriei dagokiela, eta tarte horretan aitortzenen %9,6 besterik ez dagoela. Beraz, ondare handi gutxi batzuk dira zerga hori jasaten dutenak, eta horietatik lirateke beraren ezeztapenaren onura jasoko luketenak. Berez, Ondarearen gaineko Zerga deuseztapenaren ondorioz, batez beste, 19.426,9 euro geratuko lirateke urtean zerga-bilketatik kanpo, tarte horretako aitortzen bakoitzeko.

Ondoko taulan ikus daitekeenez, zenbat eta zerga-oinarria handiagoa izan, orduan eta diru-kopuru handiagoa ordaintzen da batez beste, eta, beraz, zerga-oinarri handienak dituztenei suertatu-ko litzaieke mesedegarrien ezeztapena:

- 1,5 milioi euro baino gehiagoko zerga-oinarria duten aitortzenetan, batez beste, 19.426,9 euro utziko lirateke bildu gabe.
- 0,6tik 1,5 milioi eurora arteko zerga-oinarria duten aitortzenetan, batez beste, 2.957,5 euro geratuko lirateke ordaindu gabe.
- 300.000 eta 600.000 euro arteko zerga-oinarria duten aitortzenetan, batez beste, 543,8 euro utziko lirateke ogasunari ordaindu barik.
- 150.000tik 300.000 eurora arteko zerga-oinarria duten aitortzenetan, batez beste, 103,9 euro geratuko lirateke bildu gabe.
- 120.000 eta 150.000 euro bitarteko zerga-oinarriko aitortzenetan, batez beste, 3,4 euro lirateke bilketatik at utzitakoak.
- 120.000 eurotik beherako zerga-oinarria duten aitortzenek eta Ondarearen gaineko Zergari loturik ez daudenek ez lukete inolako onurarik jasoko.

Ondorioa argia da, beraz: Ondarearen gaineko Zerga kentzeak, gas-tuan eragin nabaria izango duen bilketa-lerma ekartzeaz gain, ondarerik handienak aitortzen dituztenei egingo die bereziki mesede.

**Ondarearen gaineko zergaren aitortpenak eta
kuota likidoa, zerga-oinarriaren arabera. EAE, 2005⁽¹²⁾**

Zerga Oinarria (euro)	Aitortpenak		Kuota likidoa		Kuota likidoa aitortpeneko
	Kp	%	Euro	%	
< 90.000	427	1,1			
90.000-120.000	235	0,6			
120.000-150.000	297	0,8	1.000		3,4
150.000-300.000	7.747	20,8	805.000	1	103,9
301.000-600.000	13.991	37,6	7.608.000	6	543,8
601.000-1.500.000	10.360	27,9	30.640.000	26	2.957,5
>1.500.000	4.111	11,1	79.864.000	67	19.426,9
Guztira	37.168	100	118.918.000	100	3.199,5

*Iturria: ELAren Azterketa Bulegoak Euskadiko Zerga-Koordinaziorako
Organoaren informazioan oinarrituz prestatua*

4. GASTU FISKALEN PISU HANDIA

HEHko presio fiskala 27-EBkoa baino txikiagoa izatearen beste arrazoi bat gastu fiskalak dira, hots, zerga-arintze, kenketa eta abarren zioz altxorrera biltzeke geratzen diren diru-kopuruak. ELAren iritziz, era horretako gastuak ez dira batere bidezkoak, gastu publikorako baliaitu beharreko diru-sarrereren murrizketa dakartelako, gastu publikoa baita, izan ere, errenta hobeto banatzeko aldarrikatzen dugun bitartekoa.

EAEn, 2007ko ekitaldirako aurrekontuetan, 6.046 milioi euroko gastu fiskala jaso zen, benetan bildu zenaren %47,8, alegia. Nafarroan, gastu fiskalaren zenbatekoa 1.443 milioi eurokoa izan zen, hots, benetako diru-sarrereren %41. Hortaz, grafikoetan ageri denez, gastu fiskalak, 2007rako aurrekontuetan, eurak egon ez balira bilduko zenaren %32,3 eta %29,1 izan ziren, hurrenez hurren, bi erkidegoetan.

**Gastu fiskalak eta benetako diru-sarrerak, diru-sarrera
teorikoen aldean (guztizkoaren %).EAE 2007**

	%
Gastu fiskala	32,3
Benetako diru-sarrerak	67,7

Iturria: Aurrekontu Proiektua

Gastu fiskalak eta benetako diru-sarrerak, diru-sarrera teorikoen aldean (gutxizkoaren %). Nafarroa 2007

	%
Gastu fiskala	29,1
Benetako diru-sarrerak	70,9

Iturria: Aurrekontu Proiektua

5. 2008AN, ZERGA-BILKETA URRIAGOA

Atal honetan, 2008ko lehenengo 10 hilabeteetan EAEn zergen bidez bildutakoa aztertu ez ezik, erreforma fiskalek diru-sarrera publikoetan izan duten eraginari buruzko hausnarketa ere egingo dugu.

Azken hilabeteetan ekonomiak izan duen hazkunde motelagoak itzali egin ditu berak zerga-bilketan izango dituen ondorioen inguruko alarmak. Antza denez, zerga-kobrantza txikiagoaren arrazoi bakarra BPGaren gehikuntza txikiagoa da. Baina zergak behin eta berriro gutxitu dituzten ondoz ondoko erreformek ere eragin dute diru-sarrera publikoen murrizketa.

EAEko Foru Aldundiek 10.188,3 milioi euro bildu zituzten, 2008ko urtarriletik urrira artean; horrek aurreko urtealdiko denboraldi berean bildutakoaren %3,4eko urritzea adierazten du. Zerga-bilketaren osagaiak zehaztasun handiagoz aztertzean, hauxe ikusten dugu:

- *Zuzeneko zergen bilketa izan da gutxien (%0,9) urritu dena.*

Zuzeneko zergen bilketaren osagaien azterketak erakusten duenez, urritze hori Sozietateen gaineko Zergak eragin du, zerga horren bilketa %8,5 gutxitu baita, onartutako zerga-beherapenaren ondorioz.

Nahiz eta oraindik urtealdiko azken 2 hilabeteetako bilketei buruzko datuak aztertu beharko diren, ez dirudi Sozietateen gaineko Zergaren inguruan gauzak asko aldatuko direnik, aurtengo lehenengo 10 hilabeteetan bildutakoa 2007ko ekitaldi osoan jasotakoaren %80 da eta.

- *Zeharkako zergen ondoriozko diru-sarrera %7,8 gutxitu da.*

Jaitsiera horren zati bat kontsumoaren gutxipenak eragin bide du, baina, datuak aintzat hartuta, iruzur fiskalaren ondorio ere badela esan ahal dugu.

- *Tasen eta beste sarrera batzuen kobrantza %1,5 urritu da.*

**Zerga-bilketa, zerga motaren arabera
EAE 2008ko urtarrila-urria**

	Bilketa (milioi euro)	Aldakuntza %
Zuzeneko zergak	5.332,5	-0,9
Zeharkako zergak	4.765,6	-7,8
Tasak eta beste sarrera batzuk	90,2	-1,5
Guztira	10.188,3	-3,4

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren⁽¹⁵⁾

B. ZERGA ARLOA EAEN

1. HITZARTUTAKO ZERGEN BILKETA EAEN. 2007KOA ETA 2006KOAREKIKO BILAKAERA

EAEko Foru Ogasunek 13.772,1 milioi euro bildu zituzten 2007an, aurreko urtealdian baino %9,7 gehiago, hain zuzen.

Bilketan pisu handiena izan duten zergak honako hauek izan dira:

- Lehenengoa BEZa da, bere bitartez 4.837,4 milioi euro, hau da, diru-sarreraren %35,1, bildu direlarik.
- Bigarren pisutsuenak, PFEZak, 4.266,3 milioi euro ekarri dizkie ogasunei, hots, bilketa osoaren %31.
- Sozietateen gaineko Zerga medio, 2.034,2 milioi euro jaso dira, alegia, sarrera guztien %14,8.
- Zerga Bereziak 1.394,1 milioi euroko kobrantza (guztizkoaren %10,1) eragin zuten.
- Gainerako 1.240,1 milioi euroak, hau da, zerga-bilketaren %9, pisu txikiagoko gainerako zergen bidez bildu ziren.

2006ko bilketaekin konparatuta, gehien hazi den kobrantza Sozietateen gaineko Zergarena (%20,2) izan da, eta, ondoren, PFEZarena, %13,6 hazi delarik. BEZa, %3,5eko gehikuntzarekin, batez bestekoaren azpitik hazi da, bai eta Zerga Bereziak ere (%2,9).

Zerga pisutsuenen bilketa, zerga motaren arabera; egitura eta bilakaera. EAE 2007-2006⁽¹⁵⁾

	2007		2006-2007
	Milioi euro	%	Aldak. %
BEZ	4.837,4	35,1	3,5
PFEZ osoa	4.266,3	31	13,6
Sozietateen Z.	2.034,2	14,8	20,2
Z. Bereziak	1.394,1	10,1	2,9
Gainerakoak	1.240,1	9	15,2
Guztira	13.772,1	100	9,7

Iturria: Eusko Jaurlaritza

Bilketa aztertzean, zuzeneko eta zeharkako zergen ondoriozko sarrerak bereiziz gero, hauxe ikus dezakegu:

- Zeharkako zergen ondorioz bildutako zenbatekoen batura 6.946,9 milioi eurokoa da, hau da, guztizkoaren %50,4.
- Zuzeneko zergen batura 6.706,7 milioi eurokoa izan da, alegia, diru-sarreraren %48,7.

Zuzeneko zergak %17,2 hazi dira 2007an zehar, eta zeharkakoak, %3,3.

Hitzartutako zergen bilketa, zerga motaren arabera; egitura eta bilakaera. EAE 2007-2006⁽¹⁵⁾

	2007		2006-2007
	Milioi euro	%	Aldak. %
Zeharkako Z.	6.946,9	50,4	3,3
Zuzeneko Z.	6.706,7	48,7	17,2
Gainerakoak	118,5	0,9	14,3
Zerga guztiak	13.772,1	100	9,7

Iturria: Eusko Jaurlaritz

Errenta motari erreparatuta, hauxe izan da 2007an zuzeneko zergen bilketaren banaketa:

- Lanaren PFEZren bidez, 4.040,7 milioi euro, hots, zuzeneko zergen bilketaren %60,2.
- Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errenten bidez, 2.534,9 milioi euro, hau da, zuzeneko zergen %37,8.
- Sozietateen gaineko Zergak 2.034,2 milioi euro ekarri ditu altxorrera, zuzeneko zergen %30,3, alegia.
- Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren PFEZren kobrantza 500,7 milioi eurokoa izan da; %7,5ekoa, beraz.

Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren PFEZ da aurreko ekitaldiarekiko gehien hazi dena (%31,6), eta horren ostekoa, Sozietateen gaineko Zerga (%20,2). Ondorioz, enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errenten kobrantzak %22,3ko hazkundera izan du, lanaren PFEZ handitu den %7,6aren gainetik.

**Zuzeneko zergen bilketa, zerga motaren arabera;
egitura eta bilakaera. EAE 2007-2006⁽¹⁵⁾**

	2007		2006-2007
	Miloi euro	%	Aldak. %
Lanaren PFEZ	4.040,7	60,2	7,6
- Sozietateen Z.	2.034,2	30,3	20,2
- Enpr., prof., kap. PFEZ	500,7	7,5	31,6
Enpr., prof., kap. Errentak (*)	2.534,9	37,8	22,3
Gainerakoak	131,1	2	-
Zuzeneko zergak, guztira	6.706,7	100	17,2

Iturria: Eusko Jaurlaritz

(*) Sozietateen gaineko Zerga + Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errenten PFEZ

Ondorioztapenak

Hitzartutako zergen bilketa %9,7 hazi da 2007an, aurreko urtekoarekiko.

Sozietateen gaineko Zergaren eta Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren PFEZaren gehikuntzaren eraginez, zuzeneko zergak zeharkako zergak baino gehiago hazi dira. Hori, berez, aurrerapausoa da, proportzio handiagoa zergapetzen delako biztanleen errentaren arabera; hala ere, zeharkako zergen pisua zuzeneko zergena baino 1,7 puntu handiagoa da, oraindik ere.

Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errentak lan-errentak baino gehiago hazi dira, eta joera hori ere onuragarria da. Baina zuzeneko zergen bidez bildutako 10 eurotik 6 lanaren PFEZtik datoz oraindik orain.


2. HITZARTUTAKO ZERGEN PRESIO FISKALA EAEN. 2007KOA ETA 1998KOAREKIKO BILAKAERA

2007an, hitzartutako zergen presio fiskala BPGaren %20,9koa izan da. Horrek esan nahi du sortutako 100 eurotik 20,9 erabili direla hitzartutako zergak ordaintzeko. Zeharkako zergen presio fiskala BPGaren %10,5ekoa izan da, eta zuzeneko zergena, BPGaren %10,2koa.

Hitzartutako zergek ekonomian duten pisuak 0,6 puntuko gehikuntza izan du 2006koaren aldean, eta 1,9 puntukoa, 1998koarekin erkaturik. 1998tik aurrera jazo den hazkundera zeharkako zein zuzeneko zergen presio fiskal handiagoek eragin dute (0,9 eta 1,1 puntukoak, ondoz ondo).

1998an, zuzeneko eta zeharkako zergen presio fiskalak antzekoak baziren ere, hemen aztertutako aldian zehar, zeharkako zergena zuzeneko zergenaren gainetik hazi da. Azken urtealdian aldea murriztu den arren, zeharkako zergen presio fiskalak zuzenekoena baino 0,3 puntu handiagoa izaten jarraitzen du. Horrek 1998koaren antzeko egoeran kokatzen gaitu.

Hitzartutako zergen presio fiskala; guztizkoa, zuzenekoak eta zeharkakoak. EAE, 1998-2007 (% PIB)



Iturriak: ELAren Azterketa Bulegoak Eusko Jaurlaritzaren eta Eustaten informazioetan oinarrituz prestatua


Zuzeneko zergen presio fiskala honako hau izan da:

- Lanaren PFEZarena BPGaren %6,1ekoa izan da, 1998koari buruz 0,4 puntu jaitsi arren.
- Enpresariaren, profesionalen eta kapitalaren errentena, BPGaren %3,8koa, 0,8 puntu hazi da aztertzen ari garen epealdiaren hasieratik hona:

- Sozietateen gaineko Zergarena BPGaren %3,1ekoa izan da, hots, 1998koa baino puntu 1 handiagoa.
- Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren PFEZren presioa BPGaren %0,8koa izan da, alegia, 1998koa baino 0,1 puntu txikiagoa.

Zuzeneko zergen presio fiskalaren hazkundea, beraz, Sozietateen gaineko Zergak eragin du.

Hitzartutako zuzeneko zergen presio fiskala EAE 1998-2007 (BPG%)




Iturriak: ELAren Azterketa Bulegoak Eusko Jaurlaritzaren eta Eustaten informazioetan oinarrituz prestatua.

Zeharkako zergen presio fiskala honako hau izan da:

- BEZarena BPGaren %7,3koa izan da 2007an, 1998az geroztik 1,1 puntu hazita.
- Zerga Bereziarena BPGaren %2,1ekoa izan da, aztertutako aldiaren zehar 0,3 puntu jaitsi ostean.

Hortaz, zeharkako zergen presio fiskalaren hazkundea BEZak eragin du.

Hitzartutako zeharkako zergen presio fiskala EAE 1998-2007 (BPG %)



Iturriak: ELAren Azterketa Bulegoak Eusko Jaurlaritzaren eta Eustaten informazioetan oinarrituz prestatua

Ondorioak

Hitzartutako zergen presio fiskala 0,5 puntu areagotu da 2006koari buruz, eta 1,8 puntu 1998koarekiko, bai zuzeneko zergen, bai zeharkakoen hazkundearen zioz. Zuzeneko zergen presioa Sozietateen gaineko Zergaren eraginez handitu da, eta zeharkakoena, BEZaren zioz.

Hala eta guztiz ere, zeharkako zergen presio fiskala zuzenekoena baino 0,4 puntu handiagoa da oraindik, eta, beraz, biztanle guztiak berdin zergapetzen dituen fiskalitateak pisu handiagoa izaten jarraitzen du, herritarren errenten arabera zergapetzen duena baino.

Gainera, presio fiskalaren hazkunde hori, berez onuragarria bada ere, ez da erabili gizarte-gastua handitzeko, superabita eratze-ko baizik.

3. PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEN ZERGA. EAE, 2005EKOA ETA 1999KOAREKIKO BILAKAERA.

Atal honetan, PFEZn lan-errenten eta errenta ekonomikoen artean dagoen diferentzia aztertuko dugu.

2005ean, PFEZn aitortutakoaren %88,7 lan-errentetatik etorri zen; %8,3, jarduera ekonomikoen errentetatik, eta %3 gainerako errentetatik (kapital higigarriaren etekinak, kapital higiezinaren etekinak eta gardentasun fiskala).

Etekinen PFEZn duten pisu erlatiboa (%) EAE 2004-2005⁽¹⁶⁾

	Lana	J. Ekonomikoak	Gainerakoak
2004	89,2	8,8	2,0
2005	88,7	8,3	3,0
2004-2005	-0,5	-0,5	1,0

Iturria: Euskadiko Zerga-Koordinaziorako Organoa

Batez beste aitortutako lan-errenta 19.778,4 euro-koa izan zen 2005ean, hau da, jarduera ekonomikoengatik batez beste aitortutako (12.273,9 euro) baino 7.504,5 euro handiagoa.

Bi errenta moten arteko jauzia gero eta handiagoa da, urteak iragan ahala. 1999 eta 2005 artean, batez beste aitortutako lan-errenta 4.417,9 euro hazi da; jarduera ekonomikoek aitortutakoak, berriz, 1.159,2 euro-ko gehikuntza baino ez du izan. Ondorioz, bien arteko diferentzia 3.258,8 euro handiagoa da 6 urtealdion buruan.

Kolektibo bakoitzak batez beste aitortutako errenta (euro). EAE 1999-2005⁽¹⁶⁾

Urtea	Lana	J. Ekonomikoak	Diferentzia
1999	15.360,5	11.114,8	4.245,7
2000	16.448,2	10.937,1	5.511,0
2001	17.114,9	11.114,4	6.000,5
2002	17.684,4	11.433,8	6.250,6
2003	18.315,3	11.726,7	6.588,6
2004	18.989,8	12.012,9	6.976,9
2005	19.778,4	12.273,9	7.504,5
1999-2005	4.417,9	1.159,2	3.258,8

Iturria: Euskadiko Zerga-Koordinaziorako Organoa

Ondorioak

PFEZn aitortzen diren 10 eurotik ia 9 lanaren PFEZtik datoz oraindik ere.

Batez beste aitortutako lan-errenta, jarduera ekonomikoek aitortutakoa baino 7.504,5 euro handiagoa izan da berriro ere, eta diferentzia hori 3.258,8 euro hazi da 1999tik 2005era bitartean.

Datu horiek azaltzeko, ezinbestez jo behar da soldatakoak ez diren errentetan foru-ogasunen permisibitatearen laguntzaz egiten den iruzur fiskala.

4. ZERGEN IKUSKARITZA

2006an, Bizkaian, 1.205 ikuskapen egin ziren, eta Gipuzkoan, 380. Kopuruok goranzko joera erakusten dute Bizkaian, eta beheranzko joera, aldiz, Gipuzkoan. Lurralde horretan, aldi berean, iruzur fiskalaren aurkako ponentzia bat egin zen Batzar Nagusietan.

Ikuskatutako zergadunen kopurua Bizkaia eta Gipuzkoa (*) 1998-2005⁽¹⁷⁾

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Gipuzkoa	507	576	479	528	390	388	355	363	380
Bizkaia	636	858	858	873	752	683	1.189	1.048	1.205

Iturriak: Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Ogasunak

(*) Arabako Foru Aldundiak ez du zerga-bilketaren gaineko urteko txostenik prestatzen, eta eman ere ez du ematen horren gaineko informaziorik, zergen ikuskaritzari buruzko datuak jakiteko eskatu arren.

2005ean, EAEn, 158,4 milioi euroko iruzurra hauteman zen. Itxura guztien arabera, ikuskaritzan ahalegin handiagoa egitea, justizia sozial handiagoa lortzeko bidea izateaz gain, errentagarria litzateke, diruz hitz eginez.

C. ZERGA ARLOA NAFARROAN

1. HITZARTUTAKO ZERGEN BILKETA NAFARROAN. 2007KOA ETA 2006KOAREKIKO BILAKAERA

Nafarroako ogasunak, 2007an, 3.596,6 milioi euro bildu zituen hitzartutako zergen bidez; hau da, 2006an baino %7,7 gehiago.

Bilketa handienak eragin dituzten zergak honako hauek izan dira:

- BEZak 1.170,2 milioi euroko bilketa eragin du, hots, guztizkoaren %32,5.
- PFEZ medio, 1.083,2 milioi euro bildu dira; alegia, diru-sarreren %30,1.
- Sozietateen gaineko Zergaren bidez, 593,3 milioi euro, bildu dira, hau da, %16,5.
- Zerga Berezien ekarpena 419,7 milioi eurokoa (%11,7) izan da.

2007an gehien hazi dena Sozietateen gaineko zerga izan da (%14,4). Gainerako zergak, berriz, batez bestekoaren azpitik handitu dira: PFEZ %7,3, BEZa %6,9, eta Zerga Bereziak %6,4.

Zerga pisutsuenen bilketa, zerga motaren arabera; egitura eta bilakaera. Nafarroa 2007-2006

	2007		2006-2007
	Milioi euro	%	Aldak. %
BEZ	1.170,2	32,5	6,9
PFEZ osoa	1.083,2	30,1	7,3
Sozietateen zerga	593,3	16,5	14,4
Zerga bereziak	419,7	11,7	6,4
Beste batzuk	330,3	9,2	2,6
Guztira	3.596,6	100	7,7

Iturria: Nafarroako Gobernua

Hona hemen bilketaren banaketa, zuzeneko ala zeharkako zergek eragindakoa izan den kontuan hartuta:

- Zuzeneko zergei 1.792,4 milioi euro dagozkie, hau da, bildutakoaren %49,8.
- Zeharkako zergen bitartez, 1.767,1 milioi euro bildu dira; alegia, diru-sarrerak guztien %49,1.

Zuzeneko zergen gehikuntza (%10,7) zeharkakoena (%4,8) baino handiagoa izan da.

Hitzartutako zergen bilketa, zerga motaren arabera; egitura eta bilakaera. Nafarroa 2007-2006.

	2007		2006-2007
	Milioi euro	%	Aldak. %
Zuzeneko zergak	1.792,4	49,8	10,7
Zeharkako zergak	1.767,1	49,1	4,8
Gainerakoak	37,2	1	12,5
Zerga guztiak	3.596,6	100	7,7

Iturria: Nafarroako Gobernuak emandako informazioa

Orain, ikus dezagun nolako banaketa ageri den zuzeneko zergen bilketan, errenta-motetan oinarriturik:

- Lanaren PFEZren bidez, 945,7 milioi euro bildu ziren, zuzeneko zergen %52,8, alegia.
- Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errenten zioz, 744 milioi euro jaso ziren, hots, zuzeneko zerga-bilketaren %41,5. Hona hemen, banan-banan aztertutik:
 - Sozietateen gaineko Zergak 593,3 milioi euroko bilketa eragin zuen, hots, zuzeneko bilketaren %33,1.
 - Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren PFEZaren bitartez, 150,7 milioi euroko diru-sarrerak bildu ziren, hau da, %8,4.

Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren PFEZ izan da 2007an gehien hazi dena (%25,3), eta bigarren hazkunde handiena Sozietateen gaineko Zergarena izan da (%14,4); ondorioz, enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errentak %16,5 handiagoak izan dira. Lanaren PFEZ, bestalde, batez bestekoaren azpitik hazi da (%4,9).

**Zuzeneko zergen bilketa, zerga motaren arabera;
egitura eta bilakaera. Nafarroa 2007-2006**

	2007		2006-2007
	Milioi euro	%	Aldak. %
Lanaren PFEZ	945,7	52,8	4,9
- sozietateen zerga	593,3	33,1	14,4
- enpr., prof., kap. PFEZ	150,7	8,4	25,3
Enpr., prof., kap. Err. (*)	744	41,5	16,5
Beste batzuk	102,8	5,7	30,5
Zuzeneko zerga guztiak	1.792,4	100	10,7

Iturria: Nafarroako Gobernuak emandako informazioa

(*) Sozietateen gaineko Zerga + Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errenten PFEZ

Ondorioztapenak

2007an, hitzartutako zergen bilketa %7,7 hazi da 2006koarekin alderatuz.

Sozietateen gaineko Zergaren hazkundeak (%14,4) eta Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren PFEZrenak (%25,3) eraginda, zuzeneko zergek pisu handiagoa hartu dute (%49,8), zeharkakoek (%49,1) baino.

Lanaren PFEZ batez bestekoaren azpitik hazi bada ere (%4,9), zuzeneko zergen bitartez jasotzen diren 100 eurotik 52,8 lanaren PFEZtik datoz oraindik.


2. HITZARTUTAKO ZERGEN PRESIO FISKALA NAFARROAN. 2007KOA ETA 1998KOAREKIKO BILAKAERA.

Hitzartutako zergen presio fiskala BPGaren %19,5ekoa izan da 2007an. Horrek esan nahi du 2007an Nafarroako ekonomian sortutako 100 eurotik 19,5 bideratu direla mota horretako zergen ordainketara.

Azken ekitaldian izan den gehikuntza txikia gorabehera, presio fiskalak 1998ko urtealdikoaren (BPGaren %19,6) antzekoa izaten jarraitzen du. Beraz, esan daiteke hitzartutako zergen presioak, gorabehera txikiak baditu ere, joera konstantea agertzen duela.

Zuzeneko zergen presio fiskala BPGaren %9,7koa izan da, eta zeharkako zergena, %9,6koa. 1998az geroztik, hauxe da zuzeneko zergen presio fiskala zeharkako zergena bestekoa den lehenengo aldia (aztertutako aldiaren hasieran, zeharkako zergen presioa zuzenekoena baino 2,9 puntu handiagoa zen). Hurbiltze hori zeharkako zergen presioaren urripenak (1,4 puntu, 1998tik hona) eta zuzeneko zergen hazkundeak (1,4 puntu) eragin dute.

Hitzartutako zergen presio fiskala; guztizkoa, zuzenekoak eta zeharkakoak. Nafarroa 1998-2007 (BPG %)



Iturria: ELAren Azterketa Bulegoak Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Estatistika Institutuaren informazioetan oinarrituz prestatua


Zuzeneko zergen presio fiskala honako hau izan da:

- Lanaren PFEZrena BPGaren %5,1koa izan da, 1998tik hona 0,3 puntu hazita.
- Enpresariaren, profesionalen eta kapitalaren errentena BPGaren %4koa izan da, aztertutako aldiaren hasieraz geroztik 0,8 puntu igotzeko delarik:
 - Sozietateen gaineko Zergaren presioa, 0,8 puntu hazita, BPGaren %3,2koa izan da 2007an.

- Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren PFEZren presioa 0,1 puntu txikiagoa izan da 2007an 1998an baino: BPGaren %0,8koa, zehazki.

Zuzeneko zergen presio fiskalak izan duen hazkundera bai lanaren PFEZren gehikuntzak, bai Sozietateen gaineko Zergarenak eragin dute, enpresarien, profesionalen eta kapitalaren PFEZren presioak, aztertutako aldian, jaitsiera txikia izan duen bitartean.

Hitzartutako zuzeneko zergen presio fiskala. Nafarroa 1998-2007 (BPG %)




Iturria: ELAren Azterketa Bulegoak Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Estatistika Institutuaren informazioetan oinarrituz prestatua

Ikus dezagun orain zenbatekoa izan den zeharkako zergen presio fiskala:

- BEZarena BPGaren %6,3koa izan da, 1998tik aurrera 1,2 puntu jaitsita.
- Zerga Bereziarena BPGaren %2,3koa izan da, 1998koarekiko 0,5 puntu gutxitu ostean.

Beraz, zeharkako zergen presio fiskalaren jaitsiera BEZak eta Zerga Bereziek eragin dute.

Hitzartutako zeharkako zergen presio fiskala Nafarroa 1998-2007 (BPG %)



Iturria: ELAren Azterketa Bulegoak Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Estadistika Institutuaren informazioetan oinarrituz prestatua

Ondorioztapenak

Nafarroan, hitzartutako zergen presio fiskala BPGaren %19,5ekoa izan da; hortaz, gorabehera txikiak izan arren, konstante mantendu da 1998tik aurrera.

Zeharkako zergen presio fiskalaren gutxipenaren eta zuzeneko zergen gehikuntzaren ondorioz, zuzeneko zergen presioa eta zeharkako zergena berdina izan dira, 1998az geroztik lehenbizikoz.

Zuzeneko zergen presioaren hazkundera lanaren PFEZk eta Sozietateen gaineko Zergak eragin dute. Zeharkako zergen presioaren gutxipena BEZaren eta Zerga Berezien ondorio da.

3. PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEN ZERGA. NAFARROA, 2006KOA ETA 2001EKOAREKIKO BILAKAERA

Honako atal honetan, PFEZn lanaren errenten eta errenta ekonomikoaren artean dauden aldeei begiratuko diegu.

2006an PFEZn aitortutakoaren %78,6 lanaren errentetatik etorri zen; %7,5 enpresariaren, profesionalen eta artisten errentetatik (errenta ekonomiko deritzenetatik), eta %13,9 berriz, gainerako errentetatik (kapital higigarriaren etekinak, kapital higiezinaren etekinak eta Zati Orokorren eta Bereziaren gehikuntzak).

Lan-errentek PFEZn duten pisua 1 puntu urritu da 1998tik hona, eta errenta ekonomikoena, 2,1 puntu, gainerako errenten pisua 3,1 puntu handitu delarik.

Errenta-iturri bakoitzak PFEZn duen pisu erlatiboa (%). Nafarroa 2001-2006

Urtea	Lana	Ekonomikoak	Gainerakoak
2001	79,6	9,5	10,9
2002	80,7	9,1	10,2
2003	81,6	8,9	9,4
2004	81,3	8,5	10,2
2005	79,8	7,8	12,4
2006	78,6	7,5	13,9
2001-2006	-1	-2,1	3,1

Iturria: Nafarroako Gobernuak emandako informazioa

Joerari erreparatuz gero, ohiz kanpoko bilakaera ageri da, 2001etik aurrera jazo izan denarekiko; izan ere, 2005 eta 2006 artean, lan-errentek PFEZn duten pisua 1,2 puntu urritu da, eta errenta ekonomikoena, 0,3 (gainerako errentena 1,5 puntu hazi zen). 2006ko ekitaldiko ezohiko bilakaera hori alde batera utzirik, lanaren errentek PFEZn jasaten duten pisua 0,2 puntu handitu zen 2001etik 2005era bitartean, eta errenta ekonomikoena, 1,7 puntu murriztu (gainerako errentena 1,5 puntu hazi zen).

Errenta-iturri bakoitzak PFEZn duen pisu erlatiboa (%). Nafarroa, 2001-2005

Urtea	Lana	Ekonomikoak	Gainerakoak
2001-2005	0,2	-1,7	1,5

Iturria: Nafarroako Gobernuak emandako informazioa

PFEZn batez beste aitortutako errentei begiratuta lanarena 22.278,8 euro-koa izan da 2007an; errenta profesionaletan, 11.106,9 euro aitortu dira batez beste, eta enpresarien errentetan, 8.393,1 euro. Beraz, lan-errentek, batez beste, errenta profesionalak baino 11.177,8 euro gehiago eta enpresarien errentek baino 13.885,5 euro gehiago aitortu dituzte.

2001etik 2006ra, batez beste aitortutako lan-errenta 3.574,2 euro hazi da, errenta profesionalak 679 euro eta enpresarien errentak 19,3 euro handitu direlarik ?irrigarria, benetan?. Agidanez, batez beste aitortutako lan-errenta besteen gainetik hazi da, alde handiz, aztertutako aldian zehar, eta, horrela, errenta moten artean 2001ean zegoen jauzia areagotu egin da urteotan. Zehatz esateko, batez beste aitortutako lan-errentaren eta profesionalenaren arteko diferentzia 2.895,2 euro handiagoa da 5 urte horien buruan, eta batez beste aitortutako lan-errentaren eta enpresarien errentaren artekoa, 3.555 euro gehiagokoa.

Kolektibo bakoitzak batez beste aitortutako errenta (euro). Nafarroa 2001-2006

	Lanarena	Profesionalena	Enpresariena
2001	18.704,5	10.427,9	8.374,0
2002	19.221,4	10.545,1	8.217,2
2003	20.309,3	10.831,5	8.464,3
2004	21.100,5	10.124,1	8.514,3
2005	21.157,8	10.602,1	8.296,4
2006	22.278,8	11.106,9	8.393,2
2001-2006	3.574,2	679	19,3

Iturria: ELAren Azterketa Bulegoak Nafarroako Gobernuaren informazioan oinarrituz prestatua

Ondorioztapenak

Lan-errentek PFEZn duten pisua (%78,6) errenta ekonomikoena (%7,5) baino askoz handiagoa da oraindino.

Batez beste aitortutako lan-errenta profesionalena halako bi da, eta enpresarien errenta baino 2,6 bider handiagoa. Aitortutako errenta moten arteko aldea gero eta handiagoa da urtez urte: lan-errenten eta errenta profesionalen artekoa 2.895,2 euro hazi da 2001etik 2006ra, eta lan-errenten eta enpresarien errenten artekoa, berriz, 3.555 euro.

Datuok agertarazten dutenez, soldatakoak ez diren errentak aitortzen dituztenen iruzur fiskala itzelezkoa da, eta zuzeneko lotura du Foru Erkidegoan egiten diren zerga-ikuskapen urriekin.

4. ZERGEN IKUSKARITZA

ELAk askotan salatu du Nafarroan ez dagoela iruzur fiskala desagerrarazteko borondate politikorik.

Gobernuak ez du iruzur fiskalari aurre egiteko batere interesik, ikuskaritza-gastura bideratzen duen BPG portzentajeak frogatzen duen legez. Ildo horretan, aurrekontu-proiektuetan jasotako informazioaren arabera, ikuskaritza-gastua BPGaren %0,01 ingurukoa izan da 2003tik 2007rako aldian. Zehazki, 2007an, 2,3 milioi euro baino ez ziren zuzendu zergen ikuskaritzara. Halaber, ikuskaritzalantetan diharduten pertsonen kopuruak 4 laguneko gehikuntza besterik ez du izan 2003tik 2007ra bitartean, eta, hala eta guztiz ere, ikuskatu beharreko zergadunen kopurua 350ekoa izan da uneoro.

Zergen ikuskaritzari buruzko informazioa

	2003	2004	2005	2006	2007
Ikuskaritza-GTU. / BPG	%0,01	%0,02	%0,01	%0,01	%0,01
Giza baliabideak	31	33	35	33	35
Zergadunen kp.	350	350	350	350	350

Iturria: Nafarroako Gobernuak

Zerga-iruzurrak eragin izugarria du nafar gizartean, biltzeke gertzen diren diru-kopuruek lermatu egiten dutelako Administrazioaren zerga-bilketa. Zerga-bilketa txikiagoaren ondorioak ere agerikoak dira, gizartearen funtsezko premiak (osasuna, etxebizitza, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak...) estaltzeko erabili beharko liratekeen diru-sarrera publikoen murrizketa dakar eta.

Iruzur fiskalaren arazoa aztertzean nabarmentzen diren arazoe-tako bat datu-gabezia da. Bereziki deigarria da sozietateen gaineko zergaren inguruko opakutasuna.

Atal honetan azaldu den guztia dela eta, ELAk lehentasunezko deritzo iruzur fiskala jazartzeari. Hori lortzeko, Administrazioaren bilketa-ahalmena areagotzea ahalbidetuko duen Plan eraginkor bat prestatu behar da.

Nafarroako Gobernuak iruzur fiskalaren kontrako plan-zirriborro bat gertatu du duela gutxi, 2008-2012 aldiari begira. Baina plan hori nekez izango da iruzurrari aurre egiteko tresna eraginkorra, orain dauden giza baliabideak ugaritzeko eta helburu eta neurri zehatz batzuetatik abiatuta jarduteko besteko aurrekontu-zuzkidurarik ez duelako. Iruzurraren aurkako Planari buruzko balorazio osoa atal honen osteko eranskinean azaltzen da.

ZERGA-IRUZURRAREN KONTRAKO 2008-2012 PLANAREN LEHENENGO ZIRRIBORROARI BURUZ EGINDAKO BALORAZIOA

IRUZURRAREN AURKAKO 2008-2012 PLANAREN LEHENENGO ZIRRIBORROAREN EDUKIA

· *Iruzurraren aurkako 2003-2007 Planaren ebaluazioa*

2008-2012rako Plana prestatu aurretik, sakon eta zuzen baloratu behar da aurreko Plana.

Oraingo Zirriborroaren 208 orrialdeetatik, ordea, 3 baino ez dira 2003-2007 Planaren gaineko balorazioak hartzen dituenak. Bertan azaltzen diren datuak partzialak izateaz gain, ez erabilitako aurrekontuari, ez giza baliabideei buruzko daturik ez da ageri. Dena dela, emandako datu urriek berretsi egiten dute aurreko atalean salatutako informazio-gabezia.

Baina, aipatu berri dugun datu-urritasuna gorabehera, aurreko Plana oso pozgarria izan dela eta beraren helburuak ia guztiz bete direla ondorioztatzen da Zirriborroan.

ELA ez dator bat, inondik ere, balorazio positibo horrekin. Gure ustetan, aurreko Plana erabat baliogabea izan da zerga-iruzurrari aurre egiteko; berez, Nafarroa, gaur egun, Europar Batasuneko gorenko mailetan dago, zerga-iruzurrari dagokionez.

Zirriborroaren arabera, aurreko Planari esker 532 milioi euro bildu dira. Honako galdera hau egin beharko litzateke, ordea: zenbat diru geratu da biltzeke, Planaren eraginik ezaren zioz?

Hortaz, Zirriborroari buruzko lehenengo balorazioa ezin negatiboago da, oraingo Plana prestatzeko abiapuntua aurreko Planaren balorazio positiboa bada, nekez taxutuko baita iruzurra jazartzeko tresna eraginkorrik.

· *Propaganda*

Nafarroako Gobernuak, Planaren prestaketa eta aurkezpena aprobetxatuz, iruzurraren aurkako borroka legealdi honetako lehentasunezko gaietakotzat hartzen duela sinestarazi nahi dio nafar gizar-teari.

Testuinguru horretan, hain zuzen, egiten du hain balorazio ona 2003-2007 Planari buruz.

Beraz, aurrean dugun Planari marketin politikorako tresna iritz dakioke, ez neurri zehatzik, ez aurrekontu-zuzkidurarik ez du eta.

· *Iruzurrarekiko permisibitatea*

Zerga-iruzurrak hartu duen tamaina ikusita, oso arazo larria da dagoeneko, gaurko gizar-tean.

Iruzurrari aurre egiteko mekanismo eraginkorrik taxutzen ez den heinean, onartu egiten da Administrazioak gizarte-premiak estaltzeko erabili beharko lituzkeen diru-baliabideak pertsona gutxiaren eskuetan geratzea, bereziki enpresa-, lanbide- eta kapital-errentak aitortzen dituztenen eskuetan, izan ere.

Hortaz, zerga-iruzurrarekiko ezin da permisibitatez jokatu; aitzitik, errotik desagerrarazi behar da, eta horretarako urratsak ikuskaritza indartzea eta neurri hertsatzaile eraginkorrak xedatzea dira.

Planean, ostera, behin eta berriz adierazten da bere izaera prebentiboa. Bertan bereizten diren zazpi arloei erreparaturik, gehien xedea heziketa eta borondatezko konplimendua dira, besteak beste. ELAk bidezko deritzo Planean alderdi horiek ere sartzeari, baina argi dago neurri hertsatzailerik jaso ezean, iruzurra egiten jarraitzeko bidea irekita uzten dela.

Hori gutxi balitz, premisetan, Plana mailaka eta malgutasunez ezarriko dela adierazten da, iruzurra berehalaxe desagerrarazten saiatzeko moduko arazoa ez bailitzan.

Zerga-iruzur handiena enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errentetan jazotzen da. Hala eta guztiz ere, Nafarroan, lanarenak ez diren errentek ikuskatuak izateko probabilitate ñimiñoa dute; Alemanian edo Belgikan, aldiz, enpresa- edo lanbide-jardueretan aritzen diren enpresei eta pertsoneri gehienez 5 urteko epean egiten zaie zerga-ikuskapena. Nafarroako Gobernuak zerga-iruzurraren inguruan hartutako jarrerak agerian uzten du enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errenten zerga-iruzurrarekiko permisibitatea.

Are gehiago: 57. orrialdeko azken paragrafoan, justifikatu ere egiten du higiezinaren sektoreko iruzurraren aurkako borroka, barkamen eske ia-ia, sektore hori finantza-krisialdia nozitzen ari dela kontuan hartu dela dio eta.

ELAk onartu ezinezkotzat jotzen ditu horrelako justifikazioak, izan ere jokabide horiek begi-bistan jartzen baitute zerga-iruzurra-rekiko permisibitatearen erabilera interesatua.

Agidanez, Nafarroako Gobernuak neurgailu ezberdinak darabiltza zerga-iruzurrari aurre egiteko: murriztailea, langileekiko, eta eskuzabala, aberatsenekiko.

· *Neurri zehatzik eza*

Planaren sarreran azpimarratzen denez, zazpi arlotan banaturiko 300 neurri jaso dira guztira. Neurriok xehe-xehe aztertuz gero, ordea, guttiz zehaztugabeak direla ikus daiteke.

Ondorio hori ateratzeko, neurriok adierazteko erabiltzen diren hitzei erreparatu besterik ez dago: sustatu, ohartarazi, aukera aztertu, hobetu, lagundu, informatu, informazioa bildu...

Jendeak bere borondatez egiten dio iruzur administrazioari; beraz, fenomeno horri aurre egiteko eta desagerrarazteko, neurri zehatzak eta, baita, hertsatzaileak behar dira. Bestela, nekez galara-ziko da iruzurra.

· *Aurrekontu-zuzkidurarik eza*

Planari ez zaio aurrekontu-zuzkidurarik esleitu. Diru-kopururik zehaztu ere gabe, ezinezkoa da Planaren eraginkortasuna bermatzea.

· *Giza baliabideak ugaritzeko konpromisorik eza*

Planak berak onartzen du horrelako jarduketan eraginkortasunak zuzeneko lotura duela bere garapenean diharduten giza baliabideekin. Hala ere, gai horri buruzko atalburuan, pertsonal gehiago sartzeko proposamenak egingo direla adierazten da, baina inon ere ez da aipatzen plantilla handitzeko konpromisorik.

- *Oraingo egoerari buruzko diagnostiko osoa eta 2003-2007 Planaren emaitzen ebaluazioa*

Zerga-iruzurra bukarazteko tresna eraginkorra izan behar duen Plan bat prestatzeko, ezinbestekoa da oraingo egoeraren gaineko diagnostikoa egitea, alde batetik, eta aurreko Planaren hutsak ebaluatzea, bestetik.

- *Konpromisoak eta neurri zehatzak*

Neurrietako bat ikuskatzaileak ugaritzeak izan behar du, modu horretan, Planaren indarraldian zehar, soldatakoak ez diren errenta guztiak ikuskatu daitezten.

- *Askoz ikuskatzaile gehiago*

Zirriborroan esaten den bezala, Planaren helburuen konplimentuak zuzeneko lotura du giza baliabideekin; horrexegatik, beharrezko deritzogu Planean plantilla handitzeko konpromisoa hartze-ari. Ikuskaritza-lanetan jardun behar duten kideen kopurua gure lehenengo proposamenean aipatu dugun diagnostikoaren arabera zehaztu beharko da.

- *Aurrekontu-zuzkidura*

Iragarritako egitasmoak burutzeko, Planean bertan jaso behar da aurrekontu-zuzkidura, bai eta xede horretara orain arte baino askoz diru gehiago bideratu ere.

ONDORIOZTAPENA

Lehenengo eta behin, ELAk guztiz beharrezko deritza iruzurraren aurkako Plan bat prestatzeari, iruzurrak osasuna, etxebizitza, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak eta premiazko beste hainbat alderdi finantzatzeko erabili beharko lirakekeen diru-sarrerara publikoen larma dakarrelako.

Gure azterketan zehar, honako bi egitate hauek egiaztatu ditugu:

- Batetik, Nafarroako Gobernuak iruzurraren kontra egin izan duen ahalegin eskasa; esandakoa baieztatzeke, xede horreta-

ra zuzentzen diren diru-baliabide urriei erreparatu besterik ez dago.

- Bestetik, zerga-iruzurra batez ere enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errentei dagokielako egiaztapena.

Aurkeztutako Zirriborroari dagokionez, balorazio negatiboa egiten dugu, ez baitugu uste Plan hori iruzurraren aurka borrokatzeko tresna eraginkorra izan daitekeenik.

Horregatik guztiagatik, ELAren iritziz, iruzurraren aurkako Planak aurrekontu-zuzkidura nahikoa behar du, bere garapenean jardungo duten giza baliabideak ugaritzeko eta, helburu eta neurri zehatzetatik abiatuta, gaur egungo zerga-iruzur eskerga desagerrarazi ahal izateko.

(1) 2006ko BPGaren arabera kalkulaturako milioi euroak. Informazioa Interneteko honako helbide honetan aurkitu daiteke: http://www.eustat.es/elem/ele0003200/tbl0003214_c.html

(2) Kalkulua 2.141.860 laguneko biztanleria oinarritzat hartuta egin da, 2007ko udal-eroldaren arabera. Informazioa Interneteko honako helbide honetan aurkitu daiteke: <http://www.ine.es/jaxi/menu.do?type=pcaxis&path=/t20/e245/p04/a2007&file=pcaxis>

(3) 2006ko BPGaren arabera kalkulaturako milioi euroak. Informazioa Interneteko honako helbide honetan aurkitu daiteke: http://www.cfnavarra.es/estadistica/agregados/macromag-economicas/cuentasytablas/cenav_05/cenav_base_05.xls

(4) Kalkulua 605.876 laguneko biztanleria oinarritzat hartuta egin da, 2007ko udal-eroldaren arabera. Informazioa Interneteko honako helbide honetan aurkitu daiteke: <http://www.ine.es/jaxi/menu.do?type=pcaxis&path=/t20/e245/p04/a2007&file=pcaxis>

(5) 2007ko udal-eroldari jarraituz, 2.747.736 laguneko biztanleria oinarritzat hartuta. Informazio hori kalkulatzeko, EAEko eta Nafarroako biztanle-kopuruak batu egin dira.

(6) EAERI eta Nafarroari buruzko zutabeen presio fiskala kalkulatzeko, 2006ko zerga hitzartuetan, udal-zergetan eta Gizarte Segurantzarako kotizazioetan oinarritu gara; Nafarroako udal-zergen presioa zenbatesteko, berriz, 2005eko informazioa erabili dugu, eskura dagoen azkena da eta.

(7) 2005eko ekitaldiaren gaineko informazioa, HEHri buruzko azken datuak urte horretakoak dira eta. EAERen inguruko informazioa Euskal Ogasunaren 2006ko Txosten Bateratutik hartu dugu, eta Nafarroari buruzkoa, Nafarroako Gobernuak emandakoa da.

(8) Urtealdi horretan, 26.179,6 milioi euro aitortu ziren. Nafarroako Gobernuak eta Zerga Kideketarako Sailak (Euskal Ogasunaren 2006ko Txosten Bateratua) emandako informazioa.

(9) 2007ko urtealdiari buruzko informazioa, EAERen eta Nafarroaren gaineko ataletan garatua.

(10) Nafarroari buruzko informaziorik ez dagoenez, atal honetako datuak EAERI dagozkio batez ere.

(11) Euskadiko Zerga-Koordinaziorako Organoaren argitalpenan, dagoeneko ez da azaltzen zerga-oinarri negatiboa edo nulua duten eta, horrexegatik, Sozietateen ganeko Zerga ordaintzen ez duten enpresen kopurua ebazteko behar den informazioa.

(12) 2005eko ekitaldiari buruzko datuak, Euskal Ogasunaren 2006ko Txosten Bateratuan argitaratuak.

(13) EAERI buruzko informazioa

(14) 2007ko urtealdiari buruzko datuak. Nafarroari buruzko informazioa Nafarroako Gobernuak emandakoa da, eta EAERI dagokiona, Eustaten web orrian eskuratu daiteke, honako helbide honetan: http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-341/es/contenidos/informacion/7119/es_2335/es_12253.html

(15) Informazio hau Interneteko honako helbide honetan ageri da: http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-341/es/contenidos/informacion/7119/es_2335/es_12253.html

(16) Euskal Ogasunaren Urteko Txosten Bateratua

(17) Bizkaiko Foru Ogasunaren Urteko Memoria eta Gipuzkoako Foru Ogasunaren Urteko Txostena
